

ONDAREA ETA GENEROA

Emakumearen papera komunitatearen eraikuntzan



Egilea
Ainhoa Azkarate Iriondo

Ondare Up! bildumaren koordinatzailea
Begoña Guzmán Sánchez

ONDAREA ETA GENEROA

Emakumearen papera komunitatearen eraikuntzan

Egilea

Ainhoa Azkarate Iriondo

Ondare Up! bildumaren koordinatzailea

Begoña Guzmán Sánchez



© UNESCO Etxea, 2021

Egilea: Ainhoa Azkarate Iriondo

Koordinazioa eta edizioa: Begoña Guzmán Sánchez

UNESCO Etxea

Isozaki Atea - Bizikidetasun plaza

Uribitarte pasealekua 12, Lokala 2, Bilbo

Tlf: +34 94 427 64 32

Harremanetan jartzeko: info@unescoetxea.org

<http://www.unescoetxea.org> • <https://www.ondareup.org/>

Itzulpena: Bakun S.L.

Diseinua eta maketazioa: Binari Comunicación

Azaleko jatorrizko irudia: Bulgariako kultura-zentro komunitarioak ('chitalishta') ©Bulgariako Kultura Ministerioa/Tsvetan Nedkov, 2013



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4) lizentziapean dago.

Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango duzu, baldintza hauek betez gero: Lanaren egiletza aitortu behar duzu. Ezin duzu lan hau erabili merkataritza-helburuetarako. Lan hau ezin duzu ez aldatu, ez eraldatu, ez eratorritako lan bat egiteko erabili. <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es>

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
KONTZEPTU-ESPARRUA: GENEROA, ONDAREA ETA KOMUNITATEA	5
Generoa UNESCOren kultura-konbentzioetan	5
Ondarea, Kultura eta Generoa	5
Emakumea ondarearen identifikazioan eta transmisioan	6
Emakumea kultura-ondare immaterialean	7
Kultura eta generoa giza eskubideetan txertatzen	8
Ondarea ahalduntze-tresna gisa	10
Ondarea bakerako eta identitateak defendatzeko	10
AZTERTUTAKO KASUAK: EMAKUMEA, KOMUNITATEA ETA ONDAREA	12
Candombe: La Melaza konpartsa (Uruguai)	12
ESMAAn emakume izatea: Berriro begiratzeko testigantzak (Argentina)	13
Woven Crafts (Filipinak)	14
Mikroeskualdeko garapen programa: Sierra de Santa Rosa (Mexiko)	15
In solidarity- The Migration Blanket (Erresuma Batua)	16
Ruanda, emakumeek berreraikitako komunitatea	17
ONDORIOAK	18
INFORMAZIO-ITURRIAK	19

PRESENTACIÓN

Azterlan hau UNESCO Etxeak bultzatutako "Ondare Up! Gazteak, ondarea eta dibertsitateak" proiektuaren esparruan egin da, uste osoa baitugu belaunaldi gazteek parte hartu behar dutela kultura-ondarearekin zerikusia duten jardueretan eta dinamiketan.

Ondare Up! Bildumaren hirugarren emankizun honek Ondarearen eta Generoaren nozioen arteko erlazioetan jarri du arreta. Ainhoa Azkarate da azterlanaren ardurduna, Filosofia, Politika eta Ekonomian graduatua Deustuko Unibertsitatean. Bokazio sutsua du giza eskubideen, emakumearen eta bizikidetzaren inguruko lanarekiko, eta azterlan honen helburua da emakumeak komunitatearen eraikuntzan betetzen duen eginkizunera hurbilketa bat egitea, kultur jardunen eta bizi diren eremuko ondarearekin jardun horiek duten harremanetik abiatuta.

Era berean, azterlan honetan interesgarria da ondarearen kudeaketak berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzeko izan dezakeen garrantzia, eta emakumeek zein ekarpen egiten dioten garapen jasangarriaren helburuari. Ondarearen eta emakumearen arteko harremana argitu nahi da 2030 Agendaren esparruan.

UNESCOK bakea ezarri nahi du hezkuntzaren, zientziaren eta kulturaren arloan nazioarteko lankidetzaren bidez. Bere lan ildoetako bat da ondare materiala eta immateriala babestea, kontserbatzea eta zaintzea. Horregatik, UNESCOK 70 urte baino gehiago daramatza estatuak eta komunitateak gai horretan konprometitzeko lanean.

Txosten honen jarraipen egokia egiteko, Munduko Ondarea eta Kultur Ondare Immateriala (KOI) kontzeptuak definitu beharko lirateke. Munduko Ondareak kultura-ondarea eta natura-ondarea hartzen ditu. Kultura-ondareztat hartzen da gizakiaren jarduerak (osorik edo zati batean) aldatu dituen monumentuen, gune arkitektonikoen eta lekuen multzoa, baldin eta "balio unibertsal aparta badute ikuspegi historiko, estetiko, etnologiko edo antropologikotik begiratuta" (UNESCO, 1972). Natura-ondareak barne

hartzen ditu monumentu naturalak, formazio geologikoak eta fisiografikoak eta espezie mehatxatuen habitata diren eremu mugatuak, bai eta "zientziaren, kontserbazioaren edo edertasun naturalaren ikuspuntutik begiratuta aparteko balio unibertsala duten tokiak ere" (UNESCO, 1972).

Bestalde, "Kultura-ondare immaterialtzat hartzen dira komunitateek, taldeek eta, kasu batzuetan, norbanakoek beren kultura-ondarearen parte gisa aitortzen dituzten erabilerak, irudikapenak, adierazpenak, ezagutzak eta teknikak -haiek berezko dituzten tresnak, objektuak, artefaktuak eta kultura-espazioak barne-" (UNESCO, 2003a). Ondare hori bost eremutan banatua dago:

- Ahozko tradizioak eta adierazpenak, hizkuntza barne, kultura-ondare immaterialaren baliabide gisa.
- Ikuskizunaren arteak.
- Erabilera sozialak, errituak eta jai-ekitaldiak.
- Naturarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutzak eta erabilerak.
- Artisau-teknika tradizionalak.

Hortik abiatuta, azterlan honetan emakumeak ondarea identifikatu, transmititu eta eskuratzeari begira duen eginkizunarekin, kultura eskubideekin (giza eskubideen funtsezko atal gisa) eta ondarearekin (nortasuna eta gizarte-kohesioa eraikitzeko funtsezko tresna gisa) lotutako kontzeptuak txertatuko eta garatuko dira pixkanaka.

Egileak gehiago argituko dizkigu gauzak munduko hainbat eskualdetako azterlanen kasu ugari azalduta, eta, argitalpen honi amaiera emateko, zenbait ondorio azalduko dizkigu, komunikazioaren eta ondarearen alorrean sakontzeko eta komunikatzeko premia azpimarratzeko baliagarri izango direnak.

Begoña Guzmán Sánchez

Gizarte-eraldaketarako kulturaren arduraduna
UNESCO Etxea.

KONTZEPTU-ESPARRUA: GENEROA, ONDAREA ETA KOMUNITATEA

GENEROA UNESCOREN KULTURA-KONBENTZIOETAN

Nabarmendu behar da Munduko Kultura Ondarea eta Natura Ondarea babesteari buruzko konbentzioan (UNESCO, 1972) ez dela generoaren gaia berariaz aipatzen. Kultura Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioan ere ez da aipatzen (UNESCO, 2003a), askoz ere berriagoa izanik aurreko 2001eko Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala baino. Aipatutako konbentzio horiek dira UNESCOren kultura-ondarea erregulatzeko oinarriak, eta generoaren gaia jorratzen duten hainbat txosten gehitu zaizkie horiei. Horren erakusgarri dugu Kultura Ondare Immaterialari eta Generoari buruzko Adituen Bileraren Azken Txostena (UNESCO, 2003b). Txosten horrek 2003ko Konbentzioaren ezarpenaren alderdi kritikoak adierazten ditu generoari dagokionez, eta hura behar bezala gauzatzeko zenbait gomendio ematen ditu.

Are esanguratsuagoa izan daiteke Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babesteari eta Sustatzeari buruzko 2005eko Konbentzioa. Bereziki zazpigarren artikulua lehena atala, azpimarratzen baitu Konbentzioa berretsi duten herrialdeek konpromisoa hartzen dutela "beren lurraldean ingurune egokia sortzeko, pertsonak eta taldeak bultzatuko dituen ingurunea, honako hauek egin ditzaten: beren kultura-adierazpenak sortu, ekoizti, zabaldu eta banatu, eta haietarako sarbidea izan, emakumeen eta gizarte-taldeen egoera eta premia berezietan behar bezalako arreta eskainiz, gutxiengoetako pertsonak eta herri autoktonoak barne" (UNESCO, 2005). Ikuspegi horri dagokionez hasiera batean isiltasuna egon arren, nabari da erakundeak ahalgina egin duela bere ondarearen kudeaketan generoan oinarritutako ikuspegia txertatzeko.

Genero-berdintasuna bermatzeko ahaleginak ugaritu egin dira, eta UNESCOren bi lehentasun globalerako bat bihurtu da. Horren erakusgarri da UNESCOren "Genero-berdintasuna" Lehentasunerako Ekintza Plana (2014-2021), eta 2008 eta 2013 bitartean garatu zen lehena Ekintza Planari (UNESCO, 2014) jarraipena ematen diona. UNESCOren programetan genero-ikuspegia txertatzeak, zehazki, 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) bos-

garren helburuari egiten dio ekarpena: genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduztea.

2030 Agenda Nazio Batuen proiektua da, eta, hedaduraz, UNESCOk ere sinatu du. Ezarri diren hamazazpi helburuetatik, UNESCOk bere lanaren bidez zuzenean laguntzen die horietako bederatziri. Hala ere, helburuen arteko lotura dela eta, erakundeak arlo guztietan egin nahi du bere ekarpena (UNESCO, 2017 a). Oso iradokitzailea da erakundearen jarrera-aldaketa garapen jasangarriaren garrantziari dagokionez. UNESCOren beraren txosten batek dioen bezala: "Orain arte, genero-berdintasunaren, kultura-ondarearen eta garapenaren arteko erlazioa ertzetan egon da politiken formulazioan eta ikerketetan, nahiz eta haien artean lotura ugari daudela esan gabe aitortu" (2015: 33).

2030 Agendak lortu du jasangarritasunaren kontzeptua UNESCOren jarduera eratzeraz pasatzea. Garapen jasangarrirako helburuen esparru horretan, bereziki interesgarria da UNESCOren lana, helburu orokor horiek estatu eta toki mailetan erkidegoen praktiketara eramateari dagokionez. Hurrengo orrialdeetan, lan honen ardatza izango da emakumeak ondarea babesteko eta zaintzeko duen eginkizuna aztertzea, eta azpimarratzea beharrezkoa dela aipatutako bosgarren garapen jasangarrirako helburu hori gauzatzeko ahalegin hori egitea.

ONDAREA, KULTURA ETA GENEROA

Ondareaz ari garenean, kulturaz ari gara; izan ere, bi kontzeptu horiek ezin dira bereiz ibili. Bata bestearen isla da. Hain zuzen, genero-aniztasunaz hitz egiten denean, kulturaren ernamuinean kokatuta, uler daiteke ondarea ere interpreta daitekeela genero-ikuspegi horretatik.

Emakumearen eginkizuna eremu pribaturako gordeta egon da luzaroan. Gertaera soziokultural horrek ondorio nabarmenak izan ditu, halaber, emakumeek kultura-ondare materialaren kontserbazioaren esparru profesionalan izan duten ordezkaritzan, 1972ko Konbentzioan jakitera

eman zen bezala. Ahots batzuk argudiatu dutenez, “ez egote horren arrazoia da, batez ere, emakumeen prestakuntza eza eraikuntzaren alorrean, tradizioz gizonentzat izan baita alor hori” (Quirosa eta Robles, 2010: 87). Mundu Ondarearen kontserbazioa arautzeko lehen formulak (haietan ez da aintzat hartzen genero-ikuspegia) errealitate horren isla huts gisa ikus daitezke. Ikuspegi horren arabera, gainera, emakumea goi-mailako ikasketa-zentroetan sartu ondoren, datozen hamarkadetan lortuko da eraikuntzaren eta ondarearen kontserbazioaren arloko parekotasuna (Quirosa eta Robles, 2010).

Hala ere, aurreikuspen horren osagarri, emakumea lanbidean sartzearen arrazoen genero-rolen bilakaeran oinarritutako azalpena eman daiteke. Azalpena honako baieztapen honetatik abiatzen da: “generoak ere eragina du ondarearekin lotutako lanbide-esparruetako sarbidean eta mugikortasunean, eta luze eta zabal islatzen ditu gizartean nagusi diren genero-rolak eta -estereotipoak” (UNESCO, 2015: 40). Beraz, genero bakoitzari lotutako rolei dagokienez, aldaketa sozialek ahalbidetuko lukete emakumea aipatutako esparru akademiko horretan sartzea.

Eremu publikoan emakumearen absentsia nabaria da politikan ere, parte-hartze txikia baitu eta emakumeek ordezkaritza urria baitute botere publikoaren egituretan. “Munduko Ondarea identifikazio-, ebaluazio-, inskripzio- eta kontserbazio-prozesuen bidez eraikitzea ere lotuta dago gizarteko botere-harremanekin” (Cameron eta Rossler, 2016: 6). Horrekin uler daiteke, alderdi teknikoko muge-tatik haratago, botere androzentrikoaren egitura sozialak mugatu duela emakumearen eginkizuna. Horren guztia- ren ondorioz, “emakumeek Estatuko bizitza kulturalen eta politikoan erabateko parte-hartzea izateko aukera murriztu egiten da dituzten eskubide politikoak, ekonomi-koak, sozialak eta zibilak eta beste eskubide juridiko batzuk sistematikoki ukatzen zaizkielako” (Shaheed, 2012: 7).

Emakumeak parte hartzeko, erabakiak hartzeko eta ondarearen kudeaketaren onuradun izateko duen gaitasuna ar-

datz izan beharko luke ondarearen kudeaketan gertatzen diren aldaketen helburuak. Egia esan, ondarea ondasun bizia da, kultura bezala, hau da, “ez da estatikoa, eta etengabe eboluzionatzen du inguruabarrei, premiei, ezagutzei eta balio aldakorrei erantzuteko” (UNESCO, 2015: 33). Horixe da, hain zuzen ere, ondarean genero-ikuspegia txertatzeko ahaleginari zentzua ematen dion ezaugarria.

Ezin gara oker ibili esatean arrazoiak badaudela UNESCOk bere konbentzioetan erakusten duen genero-neutraltasunarekin amaitzeko. Kasu berrienetan ere, hala nola 2003ko Konbentzioa eta 2001eko Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpena, badira arrazoiak pentsatzeko “emakumeen parte-hartzea eta eskubideak manipulatu eta arbuiatu daitezkeela, generoari dagokionez hizkuntza neutroa erabiltzen dutelako” (Moghadan eta Bagheritari, 2007: 16). Gaur egun, argi eta garbi aipa daiteke emakumeei oztopoak jartzten zaizkiela kultura-ondarean parte hartzeko eta beren ekarpenak komunitateak aintzat hartzeko. Hori dela eta, hainbat argitalpenek, baita UNESCOk berak ere, adierazi dute beharrezkoa dela ondareari buruzko genero-azterketa espezifikoak egitea.

EMAKUMEA ONDAREAREN IDENTIFIKAZIOAN ETA TRANSMISIOAN

Ondarea identifikatzeko edo adierazteko modua, eta batez ere bere transmisio-bideak, generoari lotuta daude berez. “Ondarea “generoak markatzen du”, eta horrela erreproduzitzen da” (Rossler, 2015: 67). Emakumeak kulturen parte hartzeko modua eta kulturen agertzen diren genero-rolak hurrengo belaunaldiei transmititzen zaizkie. Izan ere, kulturen lehen mailako transmisioa familian egiten da, eremu pribatuan, non “emakumeak izan ohi diren familiaren zaintzaile nagusiak, eta, beraz, haurrei kultura irakasten lehenak” (Rao, 1995: 169).



Basileako inauteriak © Fasnachts-Comité, 2016

EMAKUMEA KULTURA-ONDARE IMMATERIALEAN

Transmisio hori belaunaldi gazteenei ez ezik, kultura-jatorri desberdina dutenei ere transmititzen zaie haiekin harremanetan jartzean. Kulturaren transmisioan emakumeak duen rola garrantzia hartzen du ondarearen transmisioan eta horrek komunitatean hartzen dituen esanahietan ere. "Beren ezagutza- eta transmisio-sistemekin, emakumeek lagun dezakete hobeto ulertzen ondare-lekuen eta haien ingurunearen balioak" (Cameron eta Rossler, 2016: 10).

Kultura-ondareztat hartzen diren ingurune naturalek edo paisaiek, sarritan, bertan bizi den komunitatearen berezko kultura-esanahiak gordetzen dituzte beren baitan. "Giza ekintzaren eta natura-ingurunera egokitzearen arteko sinergia erakusten duten leku" gisa ulertuko lirateke "kultura-paisaia" horiek (Maraña, 2015: 11). Ondare-kategoria hori, hasiera batean, ez zen aintzat hartu 1972ko Konbentzioan, baina Munduko Ondarearen Zerrenda orekatua eta adierazgarriagoa lortzeko ahaleginaren emaitza da. Bereziki, komunitate indigenen berezko kokalekuak sartzen dira kategoria horretan. Komunitate horietan esanahi kultural berezia dute naturagune horiek, eta haietan ere ageri da zeharka generoaren kontua.

Aintzatespen horren bidez zuzendu egin nahi da "ezaugarri kulturalen eta naturalen arteko banaketaren gehiegizko sinplifikazioa, ez baitzuen kontuan hartu gizarte gehiengutik (...) bertan bizi ziren pertsonen bizitzaren irudikapen eta adierazpen bat zela, eta, hala, kulturalki ere esanguratsua zela" (Rossler, 2015: 68).

Munduko Ondarearen Zerrendan jasotako lekuek, gaur egun, emakumeek beren komunitateen barruan bizi duten egoeran lagundu ahal izateko modua bilatuz gero, komenigarria litzateke haien turismo-ustiapen jasangarria jartzea begirada. "Munduko Ondarearen guneetako turismo jasangarriko ekimenek ahalmena dute batez ere emakumeen onurak handitzeko" (Cameron eta Rossler, 2016: 10), emakumeei funtzio bat emanez komunitateen garapenean. Horrelako dinamika batek emakumeak beren komunitateen barruan ahalduntzen laguntzeko tresna gisa hartuko luke ondarea.

Ondareak emakumearen ahalduntzea bultzatzea bezala, ondareari mesede ere egiten dio emakumeek jardura eta adierazpen kulturaletan parte hartzeak. Lan honen hasieran aipatu den "Genero-berdintasuna" Lehen-tasunerako Ekintza Planera itzuliz, egiaztatu ahal izan da "tokian tokiko esperientziak eta ikerketak erakutsi dutela nola esku hartzen duten gizonen eta emakumeen arteko harremanek kultura-arloko ezagutzak eta gaitasunak transmititzeko, ondarea babesteko eta zaintzeko eta kultura- eta sormen-sektore indartsuak agertzeko eta indartzeko" (UNESCO 2014: 43) Emakumea kultura-eremu publikoan sartzeak kultura-ondarea indartzen du, eta genero-berdintasuna desira bihurtzen du ondarea babesteko eta zaintzeko prozesuan.

Munduko kultura- eta natura-ondarea alde batera utzi gabe, genero-ikuspegia aplikatzea bereziki beharrezkoa da kultura-ondare immaterialari (KOI) dagokionez. Ondare-mota hori eremu pribatuan transmititzen eta birsortzen da askotan. Adierazi den bezala, horretan hartu du parte gehien emakumeak eta tradizioz horretan kokatu da gizartean.

Kultura-adierazpenek ondareari egiten dioten ekarpena aitortzea aurrerapauso garrantzitsua izan da, 2003ko Kultur Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioak egin zuena. Konbentzio horren arabera, kultura-ondare immateriala "kultura-aniztasunaren arragoa da, eta garapen jasangarriaren bermatzailea" (UNESCO, 2003a). Orduz geroztik, komunitateen berezko eta berariazko jardunbideei balioa ematea lortu da, beren kultura-ondarearen zati gisa. "Komunitate minorizatuen eta garapen jasangarriko komunitateen autoestimua kultureko prozesu garrantzitsuak" eragiten dituen kultura-adierazpenen aintzatespena da hori (Maraña, 2015: 11).

Globalizazioak eragindako kultura-homogeneizazioaren gaineko kezka gero eta handiagoari erantzutea ere bada kultura-adierazpen immaterialari balioa ematea. "Pentsamendu bakarra eta globalizazioa gizaki eta gizarte eredu bakar bat ari da orokortzen, eta eredu horrek isilean baina sendo egiten dio eraso aniztasunari" (Comins, 2003: 98). Aniztasunarekiko kezka hori UNESCOren agendan kokatzea izan zen 2001eko Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala bultzatu zuena.

Globalizazioaren fenomenoak paradoxa bat planteatu du kultura-ondare immaterialaren esparruan: "alde batetik, bizirauteko bide berriak sor ditzake, tokiko kultura-produktuetarako (eskulangintza, sendatzeko teknikak, sukaldaritza- edo musika-motak) merkatuak estimulatu baititu. Bestalde, kultura-produktu horiek kontsumo-artikulu gisa eraldatzen, merkaturatzen eta birdefinitzen ditu" (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2019:11). Beraz, kultura-ondare imma-



Awajun herriaren ezagutza © Peruko Kultura Ministerioa, 2018

teriala saltzeko eta kontsumitzeko gauzatzeak galdera bat planteatu du, ea nork ateratzen dien onura babes-prozesuei eta horrek nola eragin diezaikeen emakumei. Sarritan ondare horren ekoizle nagusiak emakumeak izanik, emakumeak oso gutxi ordezkaturik dauden sistema bati (esparru politikoa, esate baterako) egokitu dakioke ondare hori ustiatzeko aukera (Moghadam eta Bagheritari, 2007).

Hala ere, ez da ahaztu behar emakumeak kultura-ondare immaterialaren transmisore nagusitzat hartzea planteatzen duen arazoa. "Emakumearen marjinalizazioak, gizonak nagusi diren eremu publikotik baztertuz, sarritan kultura-ondare immaterialaren ugaltzaile pribilegiatu gisa hartzen ditu emakumeak beren komunitateetan" (Blake, 2015: 50). Hau da, emakumeak eremu pribatuan duen zeregina eta talde minoritarioetan transmititzeko duen ahalmena nabarmentzeak berak ekar dezake emakumearen marjinalizazioa etxeko esparruan betikotzea, erabakiak hartzeko posizioetatik urrun. Horregatik, korronte feministek eskatzen dute kultura-praktikak "gertutik aztertze-ko, genero-berdintasuna bermatu ahal izateko, nahiz eta itxuraz normalizatu egon berariazko testuinguru batean" (Moghadam eta Bagheritari, 2007: 13).

Esan beharra dago pentsamendu-korronte oso bat dagoe- la giza eskubideen unibertsaltasuna eta inpartzialtasuna eta haien atzean dagoen justiziaren etika zalantzan jar- tzen dituenak. "Baldintza desberdinetan printzipio bereber- e jarraitzea bidegabekeria izan daitekeela" ulertzen da. Prin- tzipioei atxikitzen gatazkienean, testuinguruari errepara- tu gabe, ez gara konplexutasuna eta aniztasuna kontuan hartzen ari" (Comins, 2003:109).

Aipatutako arrisku hori kontuan hartuta, genero-ikuspegia aintzat hartu behar da ondare immateriala tratatzean. "Ge- neroa, bere aldaera osoan, aniztasun modu garrantzitsua da berez. Genero-aniztasunaren kontzeptuak kultur- an bertan dituenaz sustraiak, funtsezkoa da hori aplikatzea kultura-ondare immaterialaren genero-dinamikari buruz ari garenean" (Blake, 2015: 51).

Lan honetan aipatu dira emakumeak munduko ondare- ren kudeaketan parte hartzeak zer onura ekar ditzakeen. Bestalde, kultura-ondare immaterialak "guztiak ahaldu- ntzeko gaitasuna du, baita emakumeak ere, baina bazter- tzeko gaitasuna ere badu" (Blake, 2015: 54). Ahaldu- ntzeko gaitasun hori nabarmendu nahi du UNESCOk, ondarearen eta kulturaren eraldatzeko gaitasunarekin batera, genero- -berdintasunari arrakastaz lagun diezaiokelako. Horretar- ako, emakumeak aldaketa-prozesu horretan duen zere- gina sustatu egin behar da, "emakumeek gaitasuna izan behar baitute kultura-praktika eta -identitate jakin batzuk hartzeko edo baztertze-ko, bai eta dauden tradizioak, ba- lioak edo jardunbideak berrikusteko eta negoziatzeko edo berriz negoziatzeko ere, haien jatorria edozein dela ere" (Shaheed, 2012: 11).

Hala ere, ikusi ahal izan denez, emakumeak kultura im- materialaren babesean duen rola identifikatzeak eta ai- tortzeak eztabaida eragin du emakumea zein lekutan ko- katzen den eta horrek bere eskubideak gauzatzeko ekar ditzakeen eragozpenei buruz.

Azken hamarkadetan, eskubideetan oinarritutako ikuspe- gia txertatzeko ahalegina egin da UNESCOren kultura-on- dareari buruzko Konbentzioei dagokienez. Ikuspegi hori oso garrantzitsua da genero-ikuspegia txertatzeko ere, horretaz ari baikara lan honetan. Izan ere, nahiz eta esku- bideen ikuspegia "ez den berariaz generoari edo genero- -orekari lotutako gaietan oinarritzen, zalantzarik gabe, ho- rietan eragina izango du" (Cameron eta Rossler, 2016:10). Hain zuzen ere, talde kalteberen eskubideak babestean, kontuan hartu behar da "gizarte-talde bakar batek ere ez duela emakumeek baino giza eskubideen urraketa han- diagoa jasan kulturaren izenean" (Rao, 1995: 169).

2001eko Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpenean ja- danik lotzen dira kultura-aniztasunaren babesa eta giza eskubideak. Zehazki, lehenengo eranskinaren laugarren artikuluan, hauxe baitio: "kultura-aniztasunaren izenean inork ezin ditu urratu nazioarteko zuzenbidean bermatu- tako giza eskubideak, ez eta haiek mugatu ere" (UNESCO, 2001). Adierazi den bezala, "Ondarea kultura-adierazpen horien zati gisa hartzen badugu, uler dezakegu, era be- rean, giza eskubideen defentsarekin batera joan beharko lukeela ondarearen babesak (Maraña, 2015:7). Kultura-es- kubideak giza eskubideen zati gisa aitortzen dira, eta saia- tzen dira pertsona guztiak kultura-ondarea eskura izan eta goza dezaten bermatzen, tratu diskriminatzailearik gabe. Kulturaren eta giza eskubideen arteko batasun horri esker, kultura-ondarearen eskubideen ikuspegia garatu ahal izan da azken urteotan.

Kultura-eskubideak giza eskubide gisa identifikatuta, ezin- bestean aipatu behar da generoaren gaia. Hala erakusten du 1993ko Giza Eskubideen Mundu Konferentziaren eta 1995eko Emakumeari buruzko Mundu Konferentziaren ondoren 90eko hamarkadan nazioartekotu zen esloganak "emakumeen eskubideak giza eskubideak dira" ("women's rights are human rights") (Moghadam and Bagheritari, 2007: 12).

Askotarikoak dira generoaren eta emakumeen esku- bideen inguruan garatu diren tresnak. Hala ere, gaur egun oraindik, UNESCOk gai horri dagokionez egiten dituen ahaleginen oinarri izaten jarraitzen du 1979ko CEDAW konbentzioak (Emakumearen aurkako diskriminazio mota oro ezabatzeari buruzko Konbentzioa), Espainiak 1984an berretsia.

2009. urteaz geroztik, Giza Eskubideen aldeko Nazio Ba- tuen Goi Komisarioak "Kultura-eskubideen arloko aditu in- dependentea" izeneko prozedura bereziari indarrean eus- ten dio oraindik. Gaur egun, Karima Bennoune errelatore berezia du (2015etik), Farida Shaheed aurreko errelatorea- ren txanda hartu duena. Kultura-eskubideak eta generoa uztartuta, informazio-iturri bikaina da errelatore berezia- ren 2012ko txostena, bai eta gogoeta egiteko gonbita ere.

Emakumeen giza eskubideei eragiten dieten kultura-adierazpenak zalantzan jartzea kulturaren beraren aurkako erasotzat har daiteke kultura-inposizioan edo mendebaldartzean. Hala ere, "emakumearen giza eskubideen aldeko borroka ez da erlijioaren, kulturaren edo tradizioaren aurkako borroka" (Shaheed, 2012: 5).

Are gehiago, zenbait kultura-praktika edo -adierazpen zalantzan jartzeak bilakaera eragin dezake komunitateak ondareztat zer hartzen duen, eta zer gordetzea erabakitzen duen etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko. "Giza eskubideentzat kaltegarriak diren kultura-praktiken aurkako borrokak, komunitate baten existentzia eta kohezioa arriskuan jartzetik urrun, debatea sustatzen du, giza eskubideak hartzeko bilakaeraren mesedetan". (Shaheed, 2012: 2). Horrela, komunitatearen beraren erakusgarri da ondarea, "moldatu egiten baita eta genero-eskubideak eta -aukerak arautzen dituzten botere-egiturak islatzen baititu komunitate horretan" (UNESCO, 2015: 34).

Kultura-ondare immaterialari dagokionez, gai hori dikotomia tradizional-modernoan kokatzeko, honako azalpen honetara jo dezakegu: "Kultura-ondare immaterialtzat jotzen ditugun fenomeno edo adierazpen kulturalak aztertzen ditugunean, "tradizioak" zehaztutako eremu batean kokatzen gara, generoen rola -bi genero tradizionalenak- barneratuak eta ezarriak zeuden eta itxuraz aldaezinak ziren (...) une batean jarri nahian. Hala ere, aztertzen ari garen kultura-ondare immaterial hori orainaldian bizi da -eta, horregatik, babes dezakegu-, eta, beraz, nolabait eragin behar diote modernitateak dakartzan aldaketek" (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2019: 8). Ezinbestekoa da pertsonen balioetan eta kontzientzietan gertatzen diren aldaketa horiek beren praktika kulturaletara eramatea, eta gizarteak eta egiturek nazioarteko komunitatearen aurrean erantzun beharko dute eraldaketa horretan laguntzeko egiten duten lanari buruz.

Tradizionalaren eta modernitatearen artean tentuz jokatzeko horretan dagoen arriskua da praktika iraingarriak errespetatzea planteatzen duen erlatibismo kulturala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 18. artikulura jota. Horri erantzun zion errelatoreak bere txostenean, esanez

artikulu hori ezin dela erabili "emakumearen aurkako diskriminazioa justifikatzeko, pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna argudiatuz" (Shaheed, 2012: 11).

Eztabaida erlatibistetan ez erortzeko, beharrezkoa da "oreka lortu ahal izatea komunitatearen premien (...) eta banakako kideen (...) premien artean, haien banakako eskubideak urra baititzakete praktika horiek. (Blake, 2015:52). Emakumeen kasuan, ezaugarri horiek dituzten praktika ezagunenak honako hauek izango lirake, besteak beste: "neskatoen infantizidioa eta jaió aurreko sexu-hautaketa, ezkontza goiztiarra, ezkonsariarekin lotutako indarkeria, emakumeen sexu-organoen ablazioa edo mutilazioa, emakumearen aurkako krimenak "ohorearen" izenean eta alargunen tratu txarrak" (del Cano, 2009: 5).

Kultura-eskubideen baldintza garrantzitsuenak nabarmentzeko balio dute adibide horiek, kasu horietan ukatu egiten baitira. Hau da, diskriminaziorik eza eta tratu berdintasuna, alde batetik, eta parte ez hartzeko eskubidea, bestetik. Lehenengoak giza eskubideen ikuspegi orokorrari erantzuten badio, bereziki bigarrena "erabakigarria izan daiteke emakumeen eskubideen babesaren kasuan" (Maraña, 2015: 16).

Parte-hartzearen kontuak, kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidearen osagai nagusietako bat den aldetik, kultura-bizitzarako sarbidearekin eta ekarpenarekin batera, barne hartzen du "tradizio, ohitura eta praktika jakin batzuetan parte ez hartzeko eskubidea ere, bereziki giza eskubideak eta pertsonaren duintasuna urratzen dituztenetan" (Shaheed, 2012: 10).

Bereziki garrantzitsua da emakumeen eta haien eskubideen egungo egoera aztertzeko; izan ere, "emakumeek ohitura jakin batzuetan ez parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dutenean eta beren kultura-komunitateen inguruak interpretatu, zuzendu eta erreformatzeko orduan, neurritz kanpoko aurkaritza izaten dute" (Maraña, 2015: 18).

Parte ez hartzeko eskubideak, norberaren kultura-bizitzari buruz erabakitzeko askatasunerako eskubidearekin batera, aukera sorta bat irekitzen du, eta horrek intersekzio-



Campo Maior herriko jaiak ©Augusto Brázio, 2015

nalitateari egiten dio bide. "Emakumeak askatasuna izan behar du edozein kultura-komunitatetan sartzeko edo hartatik ateratzeko, aldi berean hainbat komunitaterekin elkartuta egoteko" (Shaheed, 2012: 11). Horrela, gizabana-koen eta komunitateen nortasunaren eraketarekin eta bilakaerarekin lotzen da kultura.

ONDAREA AHALDUNTZE-TRESNA GISA

Identitatearen eraikuntza aipatzen denean, prozesuaren izaera ebolutiboa antzeman daiteke, agian inoiz amaitzen ez den prozesua, eta kulturak laguntzen dio prozesu horri. Ikuspegi horren kontra daude "kulturaren erretratu esentzialistak, kulturalki nagusi diren arauak "kultura-identitatearen" osagai nagusi gisa aurkezten dituztenak sarritan" (Shaheed, 2012: 8). Kultura-identitatea menderatzea, berez, ekintza politikoa da, botere-egitura menderatzaile/zapaltzaile baten erabaki politikoak hartzeko esparruan sortzen dena. "Gizartean eta politikoki nagusi den taldeari edo talde etniko jakin bati lotutako nortasun nazionala inposatzeko aprobetxatzen dute, beste komunitate batzuen kultura-eskubideak ikusezin bihurtuz eta ukatuz" (Maraña, 2015: 8).

Kultura askotarikoa da, eta inola ere ez estatikoa; beraz, "komunitate batean emakumeen eta genero-talde espezifikoek kultura-eskubideak ukatzeak ahuldu eta nahasi egiten du kulturak duen dinamismoaren oinarritzko ezaugarri hori" (UNESCO 2015: 134).

Kultura-eskubideetan jartzen da arreta, kultura-aniztasuna eta identitate propioak babesteko konponbide gisa, eta, esan bezala, komunitatean nagusi den beste identitate batek erasotzen ditu identitate horiek. "Giza komunitate guztiek (...) boterea dutenen ikuspuntua eta interesak islatzen dituen kultura menderatzailea dute ezaugarri", eta generoan oinarritutako azterketa honi gehien interesatzen zaiona da "kultura nagusia, ia ezinbestean, patriarkala dela" (Shaheed, 2012: 15).

Egoera horretan, diskriminatutako gizarte-talde bateko kide izateak diskriminazio-arrazoi bikoitza dakarkie emakumei, emakume izateari berari gehitzen baitaio. Beraz, funtsezkoa da ondarea zaintzen eta babesten parte hartzea; izan ere, "ondarearen eta identitatearen arteko harreman estuak tresna boteretsua bihurtzen du, pertsonen, taldeen eta nazioen ahotsa emateko eta haien ordezkari izateko" (UNESCO, 2015: 47).

Ondareak duen ahotsa emateko gaitasun horrek ahaldunduntze-tresna bihurtzen du. Beraz, kultura-ondarera-ko sarbidea izateak eta ondare horretan parte hartzeak aparteko balioa du talde diskriminatuen eta gutxiengoentzako defentsan. "Kultura-eskubideak ahaldunduntzeko eta giza eskubideak, bereziki emakumeen eskubideak, defendatzeko tresna izan daitezke" (Maraña, 2015:25). Esparru publiko-ko jausi egiteko eta bere eskubideak eskatzeko aukera, elkarrengaineko eta zapalkuntzarik gabeko egoera batera

pasatuz, gara liteke praktika eta ezagutza kulturalak duinduta. "Kultura-eskubideak ahaldunduntze-eragileak dira, pertsonen beren bizitzaren gaineko kontrola ematen baitiete, eta horrek beste eskubide batzuk erabiltzea errazten du" (Shaheed, 2012: 13).

Errelatore bereziak 2012ko txostenean adierazi duen bezala, lortu nahi dena da "kultura emakumearen eskubideetarako oztopo den paradigmatik kultura-eskubideen gozamenen berdintasuna bermatuko duen paradigmara igarotzea" (Shaheed, 2012: 5). Horrela, kulturaren pertzepzioa aldatzea proposatzen da, emakumeen eskubideak garatzeko oztopo izatetik eskubide horiek bultzatzeko pailanka izatera pasatuz.

ONDAREA BAKERAKO ETA IDENTITATEAK DEFENDATZEKO

Kultura-eskubideek eta emakumeen eskubideek giza eskubideekin duten lotura ezarrita, gatazkaren eta bakearen kulturaren auzia ekuazioan sartzeko garaia da orain. Ezinbestean, "komunitateen giza eskubideei lotutako gaiak jorratzen ez diren lekuetan, gatazka ugari sortzen dira gero" (Maraña, 2015: 9).

Bakearen kultura eraikitzeko aliatu izan daitezke kultura-ondarea eta haren aniztasuna defendatzea eta babestea. Bestela esanda, "kultura-aniztasunaren adierazpenak ulertuta, bake iraunkorra eraiki daiteke" (Cameron eta Rossler, 2016: 10). Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalaz azpimarratzen du bakearen kulturaren garrantzitsua dela aniztasuna aitortzea eta defendatzea. Bakearen kultura sustatzeak eta kultura horretan hezteak garrantzi handia hartu zuen mende amaieran, 2000. urtea Bakearen Kulturaren Nazioarteko Urtea izendatu izana horren adierazgarri, bai eta, ondoren, munduko haurrentzako bakearen kulturaren eta indarkeriarik ezaren Nazioarteko Hamarkada (2001-2010) izendatu izana ere.

Erreferentzia berriago gisa, 2030 Agenda dugu. Hark adierazten ematen du "kulturen arteko elkarrizketa eta kultura-aniztasunarekiko errespetua adiskidetzeko-tresna ahaltsuak dira, bai eta gizarte baketsuak sortzeko ere" (UNESCO eta BIRF, 2018: 17). Kultura-ondarea kultura-aniztasunaren adierazgarri handienetako batenez, argi dago "giza eskubideekin lotutako guneak eta ondarea babestea tresna egokia izan daitekeela giza eskubideetan hezteko eta bakearen kultura sustatzeko" (Maraña, 2015: 21), batez ere memoriari eskainitakoak.

Funtsezkoa eta garrantzitsua da ondare hori babestea, baita hondamendi natural bat edo gatazka bortitza bat gaititu duten lekuetan eta komunitateetan ondare hori berreskuratzea ere. Oso maiz gertatzen dira horrelako egoerak, eta, askotan, "krisi horiek eragina izan dute tokiko identitateen muina ziren eta tokiko bizitza ekonomikorako aktibo esanguratsuak ziren garrantzi handiko eremu historikoetan" (UNESCO eta BIRF, 2018: 53). Beraz, kultu-

ra-ondarea hondatzeak edo galtzeak eragina du komunitatearen identitatean nahiz hura garatzeko gaitasunean.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren lehenengo artikulua gogorarazten digun bezala, "Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberekin, eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute" (Nazio Batuak, 1948). Giza eskubideen onarpenaren muinean dago giza duintasuna, eta giza duintasuna nortasunari lotuta dago berez. Baieztapen horrek nabarmendu egiten du "kultura-eskubideek duten eginkizuna, pertsonen eta komunitateen duintasuna babesteko funtsezkoak diren identitatearen alderdiak babesteko orduan" (UNESCO, 2015: 52).

Bakearen, kulturaren eta identitatearen artean antzeman daitekeen harremana azaldu dugu lerro hauetan. Testuinguru horretan, eta lan honen oinarri den genero-ikuspegira itzulita, nabarmendu behar da kultura-eskubideak eta identitateak urratuak izateko arrisku handiagoa duten kategoriataldean dagoela emakumea, gutxiengoekin eta gazteekin batera askotan. Hala ere, emakumea eremu publikoan eta erabakiak hartzean sartzeari beharrezkoa da bake demokratikoaren kultura lortzeko -gaur egungo teoria feministetatik defendatzen den bezala-, bakerako hezkuntzarako tresna baliagarri gisa hartuta zainketaren etika edo beste konkretuaren ikuspegia (berezi emakumeei esleitua) (Gilligan, 1985) (Benhabib, 1990).

Emakumeak eremu publikoan eta politikoan sartzeko premia horrek paradoxa bat dakarkigu, gaur egun oraindik ere ikusten duguna. Alde batetik, gizartean eta, berezi, kulturaren eremuan emakumearen eskubideak bermatzeko,

"gizarte eta komunitate guztietan eztabaida informatua, irekia eta partaidetzakoa zalantzarik gabe bultzatuko duten politikak behar dira, giza eskubideez gozatzeko kaltegarriak diren praktikak eta arau kulturalak ezabatu ahal izateko" (Shaheed, 2012: 22).

Baina, bestalde, "emakumea familiarekin eta etxearekin lehen mailan identifikatzeak, bizitzaren esfera "publikoa" eta "pribatua" bereizteko problematikan, bigarren mailako estatusari laguntzen dio, emakumearen etorkizuna eztabaidatzen eta erabakitzen den eremu berean: publikoa" (Rao, 1995: 169). Gaur egungo gizarte demokratikoei planteatzen zaien erronka saihestezina da hori, eta, horretarako, maila berean egon behar dute.

Gaur egun, estatua eragile garrantzitsua bada ere herritarren eskubideen defentsari dagokionez, nazioarteko erakundearen eginkizuna gero eta indar handiagoa hartzen ari da egoera politiko eta ekonomiko globalean. Azken horiek eskubideak defendatzearen eta estatu kide guztiek nazioarteko itunak eta konbentzioak errespetatzearen alde egitea funtsezkoa da.

Lan honetarako erreferentzia gisa balio izan duten erakundeek, UNESCOk eta NBEk, "politika sistematikoagoei eta sendoagoei buruzko elkarrizketa garatzeko eta lortzeko bidea gidatu dezakete (...), emakumeen parte-hartzea eta genero-berdintasuna sustatzeko" (Rossler, 2015: 69). Estatuak abian jartzen dituzten ondarea kudeatzeko ereduak bermatu beharko lukete: "emakumeak ere bozeramaile izango direla, agintaritzaren kargu izango direla, parte hartu nahi duten eta sortu nahi dituzten komunitate guztiak aldatzeko" (UNESCO, 2015: 7).



Irlandako harparen praktika @Kieran Cummins, 2017

AZTERTUTAKO KASUAK: EMAKUMEA, KOMUNITATEA ETA ONDAREA

Lan honetan aurkezten diren jardunbide egokien kasuek genero- eta ondare-izendatzaile komunak dituzte, askotariko planteamendu, kokapen eta ikuspegien barruan. Proiektuak memoria historikoaren, gutxiengo sozialen, garapen jasangarriaren eta ingurumenaren inguruan garatzen dira.

Nazioarteko kasuak direnez, beren berezitasunean, proiektu eta errealtate horiek erakusten dute aztertutako alderdiek garrantzi handia dutela kultura eta komunitate guztietan.

CANDOMBE: LA MELAZA KONPARTSA (URUGUAI)

Gizarte batean dauden identitateek kultura-aberastasuna ematen diote gizarte horri. Aberastasun eta aniztasun hori babestearren, UNESCOk kultura-adierazpen immaterialak aintzatesten ditu haien babesa eta zaintza bultzatu ahal izateko.

2009az geroztik, Gizadiaren Kultura Ondare Immateria-laren Ordezkaritzaren Zerrendan dago Candombe, bere garaian Uruguai izendatua (UNESCO, 2009). Afrikako komunitateetan sortutako kultura-adierazpena da; garai kolonialean herrialdera eramandako esklabo afrikarrak bizi ziren komunitate horietan. Candombe espazio sozio-

kulturala da, eta bertan eratu da hamarkada askotan zehar Uruguaiako gizartearen parte den afrikar jatorriko talde minoritario eta diskriminatu horren identitatea.

Gaur egun, candombe danbor-deia deiturikoan, era guztietako pertsonak parte hartzen dute konpartsetan antolatuta. Montevideoko auzoek beren konpartsekin parte hartzen dute, candombea kohesio eta gizarteratze praktika komunitario bihurtuz. Afrikar komunitatearen presentzia handiena duten auzoak dira tradizioarekin lotura handiena dutenak, Barrio Sur, Palermo eta Cerdón auzoak, hain zuzen ere.

Candombe danbor-deia hiriko auzoetako kaleak zeharkatzen dituen desfilea da, eta hainbat pertsonaia interpretatzen dira desfile horretan. Hortxe bihurtzen da garrantzitsu genero-ikuspegia aplikatzea, hau da, rolak edo eginkizunak sexuaren arabera esleitzea.

Pertsonaia nagusiak izaten dira eskoberoa, mama vieja eta gramilleroa edo petrikiloa, eta haien atzetik dantzariak eta danborren lerroa joaten dira. Pertsonaia horien desfile tradizionalan, mama vieja izateko edo dantzari-taldeko kide izateko aukera baino ez du izaten emakumeak. Dantzari-taldeko kideak emakumeak izaten dira gehienak. Gainera, gero eta gehiago ikusezin bihurtzen ari da mama vieja pertsonaia, sortu berri diren beste pertsonaia batzuen alde, hala nola vedettea, zeinak gehiago erantzuten baitio logika komertzialari eta birsortze-logikari.



Egoera horri aurre egiteko eta hain esanahi handia duen kultura-adierazpen horretan emakumeen parte-hartzea sustatzeko, La Melaza sortu zen 2005ean. Emakumeen talde txiki batek 2005eko martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko egindako ekimen gisa hasi zena, emakumez soilik osatutako danborren lerroa duen lehen konpartsa bihurtu zen.

2008an parte hartu zuten lehen aldiz Deien Desfile Ofizialean, eta zortzigarren postua lortu zuten konpartsen arteko lehiaketan. Hiru urte horietan antolatutako tailerretan gero eta emakume gehiagok parte hartu izanari eta aurrera eraman zituzten jardueri esker parte hartu ahal izan zuten lehiaketa horretan.

20 eta 55 urte bitarteko emakumeek osatzen dute konpartsa, eta aniztasuna eta gizabanakoen eskubideak sustatzen dituzte. Erlatibismo kulturalarekin lotutako diskurtsoak alde batera utzita, defendatzen dute emakumeek parte hartu behar dutela tradizioz gizonentzat gordeta egon diren rolak betetz. Proposamen integratzaileari leial izan nahian, hilabete bakoitzeko azken igandeko irteera gizonak ere danborren lerroko kide izateko gordetzen da, eta gizonentzat eta haurrentzat beti egoten da zabalik dantzarien taldeko kide izateko aukera.

Melaza konpartsak zutik dirau, kulturaren eremu publikoan emakumeen parte-hartzea sustatuz, candomberen esanahia eta jatorria erreproduzitzeko leial. Raíces izeneko ikuskizunean inauguratu zuten Emakumeen Lehen Topaketa "Tamboras libertarias" danborrean 2019ko azaroan, Quiton, eta honako pasarte hau irakurri zuten:

"Historian zehar gure lurraldean bizi izan ziren arbaso Afro, Indigena eta Kreole guztiei egindako omenaldia da RAÍCES, sekulako ondarea eman baitigute gure identitatea eraikitzeko. Bizitzan beren arrastoa utzi zuten emakume guztiak ere ohoratu nahi ditugu, gaur danbor bat hartu eta aske dantzatu baitezakegu haiei esker. Gure konpartsa eraiki duten emakumei ere omenaldia egin nahi diegu. Haiek guztiak dantzan eta dilin-dalan ibiliko dira gure gorputzetan eta danborretan, guztiok elkartuta bultzatuko ditugun borrokan, maitasunean eta erresistentzian.

Candomberi dagokionez, UNESCO bezalako nazioarteko erakundeek hura aintzat hartzea funtsezko urratsa da duen kultura-funtsa eta esanahia babesteko ahaleginean.

Hala ere, ikusteko dago nazioarteko erakundeek eta Uruguaiako Gobernuak zer lan egingo duten candomberen esanahia babesten laguntzeko duten erantzukizuna betetzeko, beste kultura-adierazpen askok ere jasaten duten merkaturatze-ahalegin etengabearen aurka. Haren jatorriak eta zentzuak memoria sozialerako tresna bihurtzen dute candombe, eta, aldi berean, elementu integratzailea ere bada, ezinbestekoa bakearen kulturarako eta gizarte askotarikoa eta kohesionatua izateko.

ESMAN EMAKUME IZATEA: BERRIRO BEGIRATZEKO TESTIGANTZAK (ARGENTINA)



Buenos Airesen dago Sitio de Memoria ESMA museoa, 2015. urtean inauguratua, leku horretan gertatu ziren giza zateriaren aurkako krimenen oroimenez. Zehatz esateko, Ofizialen Kasino zaharraren eraikinean dago. 1976tik 1983ra bitartean, Argentinan diktadura zibiko-militarra gertatu zen urteetan, atxilotze, tortura eta sarraskirako zentro klandestino gisa erabili zuten. Desagertutako 5.000 lagun inguru igaro ziren ESMAtik, eta haietako asko hegazkinetatik itsasora bota zituzten bizirik, "heriotzaren hegaldiak" izenekoetan.

Giza eskubideen aldeko hainbat erakundek memoriarekin lotutako ondare-balio handiko eraikin hori kontserbatzeko egindako ahaleginari esker sortu da museo hori. Ahalegin horren zati bat da 2017an UNESCOren Argentinako "Lista tentativa de Patrimonio de la Humanidad" zerrendan sartu izana (UNESCO, 2017 b). Hautagaitzaren justifikazioan ikus daitekeen bezala, Argentinan diktaduran gertatu zen genozidioaren lekuko izan zen toki hori. ESMA bezalako zentro klandestinoetan planifikatu eta gauzatu ziren giza eskubideen urraketa larriak, gatibaldian jaiotako haurrak lapurtzeko plan sistematikoa eta itsasora bizirik bota zituzten preso sarraskia. Gaur egun, "Estatuaren terrorismoa salatze eta oroimena transmititzeko gune" gisa ezagutzen da.

Azterlan honetarako bereziki garrantzitsua da "ESMAN emakume izatea" aldi baterako erakusketa. 2019ko martxoaren 14tik ekainaren 14ra bitartean egin zen eta harekin genero-ikuspegia txertatu zen gauzatzen ari zen memoria historikoko proiektu batean. Argentinan mugimendu feministak azken urteetan hartu duen indarra, ezinbestean, Sitio de Memoria ESMA museoa bezalako erakundeetara eraman da, eta lan egiten duen narratiba berrirakurtzera eta berrinterpretatzera bultzatu du museo hori, zentrotik igaro ziren emakumeen ikuspegitik oraingoan (Dandan, 2019).

Ikuspegi hori esparru judizialean ere txertatu izanaren fede ematen du erakusketak. 1985eko Batzar Militarren Epaietan, ESMAtik bizirik atera zirenek testigantza eman



WOVEN CRAFTS (FILIPINAK)

zutenean, hainbat motatako giza eskubideen urraketak salatu ziren, baina ez ziren agertu sexu-indarkeriari eta genero-indarkeriari buruzkoak. Argentinan gizateriaren aurkako epaiketak berriro ireki direnez, horrelako zentro klandestino ugarietan izan ziren sexu-abusu eta -delituei buruzko testigantza eman dute emakumeek. Lehen tortura, indarkeria edo tratu iraingarrien izen generikoa zuten ekintza horiek modu autonomoan ulertu eta salatu dira, gizateriaren aurkako krimen gisa. Horrela, "bortxaketak eta abusuak zehatu eta zigortu nahi dira, Estatuaren erreparazio-betebeharren barruan".

Erakusketak 28 emakumeren testigantzak aurkezten ditu 1985eko Epaiketari, bai eta gizateriaren aurkako epaiketetan ere, hala nola "ESMA Unificada" auzia, Buenos Aires hiriko 5. Ahozko Auzitegi Federalean garatuak. Erakusketaren inaugurazio-egunerako 107 zigor eman ziren, gizateriaren aurkako epaiketetan abusu sexualagatik, bortxaketagatik eta abortu bortxatuagatik, baina ESMAko Lantaldeko kide bakar bat ere ez zen kondenatu delitu sexualengatik. Gaur egun irekita dago epaiketa "ESMA Delitos Sexuales" auziagatik, bi inputaturekin eta 8 lekukorekin.

Genero-ikuspegiari buruzko interesa gero eta handiagoa dela kontuan hartuta, kasu honetan memoria historikoari aplikatuta, erakusketak harrera ona izan du herritarren aldetik. ESMA museoan egon ondoren, erakusketa herrialdeko beste museo batzuetara eraman zen, eta Bilbon ikusteko aukera ere izan zen Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan.

Erakusketak bide ematen du gatazka-garaietan emakumea zein posiziotan dagoen hausnartzeko. Emakumeak gauza bihurtzea, edo bortxaketa eta abusu sexualak arma gisa sistemikoki erabiltzearekin loturiko kontuak argi eta garbi agertzen dira ESMAtik bizirik atera zirenen testigantzetan.

Testigantza batean adierazten den bezala:

"Emakumeak gerrako harrapakina ginen. Gure gorputzak gerrako harrapakintzat hartu zituzten" (S.L. Causa ESMA Unificada).

2013ko azaroan, Haiyan tifoia (Filipinetan Yolanda izenez ezaguna), ordura arte ikusitako indartsuenetakoa bat, Filipinetako uharteak astindu zituen. Ekaitzak 315 km/orduko haize-boladak ekarri zituen, hiru lagun hil zituen eta kalte materialak eragin zituen, baita laborantzako lurak suntsitu ere (Mullen, 2013). Landako herrixketako biztanleek arazo larriak izan zituzten tifoia eragindako ondorioei aurre egiteko.

Haiyan tifoia igaro ondoren, Trish Lim eta John Francia gazte filipinarrek, Basayko (Samay) gune kaltetuaren garapen ekonomikorako plana egitea erabaki zuten. Artisau-tradizioan eta tikog brodatuan aukera bat ikusi zuten komunitate horiek, eta bereziki emakumeak, modu jasangarrian garatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Tikog-ehuna egiteko erabiltzen den lehengaia da, arrozetako eremu zingiratsuetan hazten den kanabera-belar berezia, Filipinetan oso hedatua dagoena. Tikog bidez ehundutako esterekin (Banig izenarekin ezagutzen direnak), poltsak, zorroak, eskumuturrekoak eta abar egiten dira.

Basayko artisau-ehuleei laguntzeko enpresa- eta kudeaketa-teknikak txertatzeko proiektu gisa hasi zena, izaera sozialeko ekintzailtza-proiektu bihurtu zen 2016an: Woven Crafts.

Proiektuak laguntzen du emakumeek merkatuan sarbide hobeia izan dezaten eta brodatze-teknikei buruzko ezagutzak parteka ditzaten. Ekintzaileen zentroetan parte hartuz, saltzeko aukera eta bide berriak zabaldu ziren Woven proiektuarentzat, eta produktuaren eskaera handitu egin zen. Hala, artisauen diru-sarrerak handitu egin dira, eta horrek tradizioarekin jarraitzera bultzatzen ditu belaunaldi gazteenak.

Azken hamarkadetan, ehuleen diru-sarrera txikiek eta lan-baldintzek ez zuten lan hori bizi-euskarri duin egiten. WOVEN proiektuaren aurretik, artisauak 600 bat filipinar peso biltzea lortzen zuten hilabetearen buruan, hau da, 10 euro, eta arrisku larriaren zegoen tikog brodatzeko teknika tradizionala.

Bi alderditan oinarritzen da proiektu honek azterlan honetarako duen garrantzia. Alde batetik, kontuan hartu da tokiko tradizioa babesteko izan duen eragina, tikog-ehuna hain zuzen, batez ere emakumeek egiten dutena. Baina, gainera, lan egiten duten emakume horien lidergo-ahalmena askatzen laguntzen du. Horrela, emakumeak eredu inspiratzaile bihurtzen dira beste batzuentzat beren komunitateetan.

Orain arte, 30 lagun daude (horietatik % 99 emakumeak), Wovenek lan egiten duen ehuleen elkartean. Elkarte horren kudeaketak berak lidergo-lanak egitera eta erabakiak



hartzera bultzatzen ditu emakumeak. Wovenen asmoa da emakumeak ahalduentzeko bultzada hori komunitatera heldaraztea.

Sortu zenetik, enpresak hazten jarraitu du eta sortzaileek espero dute beste erkidego batzuetara ere eramán ahal izatea. Wovenek egindako lana aintzat hartu dute ekonomia sustatzen eta lankidetzak bultzatzen duten nazioarteko erakundeek. Hala jaso zen Asia-Pazifikoko Ekonomia Lankidetzako Foroaren (APEC, 2015: 47-50) Emakumeari eta Ekonomiari buruzko Elkarte Politikokoaren (PPWE) txostenean. Haien tifoia ondoen proiektu horrek Basayko komunitateari ekarri zizkion onurak nabarmentzen ditu txosten horrek.

Woven enpresa gisa finkatu zenetik, nazioarteko enprekin lankidetzan aritzeko aukera izan du, hala nola Charles & Keith singapurtarrarekin, Asian, European, Latinoamerikan eta Afrikan presentzia globala duena. 2019an egin zuen, Emakumearen Nazioarteko Egunean "Biharko emakumeak ahalduentzen" bilduma berezian. Markak diskriminaziorik, desberdintasunik eta genero-indarkeriarik gabeko munduaren ikuspegia lortzeko egindako lanaren eta hartutako konpromisoaren zati gisa sartu zuen bilduma.

MIKROESKUALDEKO GARAPEN PROGRAMA: SIERRA DE SANTA ROSA (MEXIKO)

Azken hamarkadetan, ingurumena da erakunde publikoen agenda politikoan maila guztietan ezarri den gaietako bat. Baliabideak ustiatzeak eta ekosistemak maila jasanezinetan suntsitzeak eztabaidaren erdigunean jarri dituzte berreskuratzeko ahaleginak. Horren ondorioz, NBEren Bazar Nagusiak Ekosistemak Lehengoratzeko Nazio Batuen Hamarkada izendatu zuen 2021-2030.

Lehengoratzeko horretarako ahalegina garapen jasangarri-rako helburuen barruan sartzen da, eta haietako askorekin lotuta dago, esate baterako klima babesteko ekintzarekin eta pobrezia desagertzearekin (13. eta 1. helburuak, hurrenez hurren). Ekosistemen galerak, klima-aldaketak eta biodibertsitatearen gainbeherak ondorioak dituzte mun-

du osoan, eta gizarte-eragileek aztertu egin behar dituzte, sektore publiko nahiz pribatuetan. Kultura-ondare naturalari eragiten dio, harekin elkarrengaiten baitute eta ondare natural horren mende daude milioika pertsona.

Testuinguru horretan, NBEk berak onartzen du emakumeak eginkizun garrantzitsua duela ekosistemak zaindu, kudeatu eta berreskuratzeko prozesuetan eta baliabideen ustiapenean. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, haietan emakumeek naturarekin zuzeneko harremana baitute eta naturaren degradazioak eragiten dien lehenak baitira, garrantzitsua da haien ahotsa entzutea. Funtsezkoa da emakumeak egotea, bai prozesu politikoetan, bai komunitateak aurrera eramaten dituen ekintzetan.

Ekosistema baten berreskurapenaren inguruko erreferentziazko proiektu gisa, Sierra de Santa Rosa Garapen Programa hartuko dugu, Guanajuato herrixkan (Mexiko). Programa hori 1998an jarri zen martxan, 2015era arte, Sierra de Santa Rosa eremuko 113 hektareako ekosistema kontserbatzeko. Biodibertsitate handiko hezeguneak daude eremu horretan, eta ingurune hori degradatu egin dute baliabideak ustiatzeko jarduerak, hala nola, baso-soiltzeak eta inguruko meatze industriak.

Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuetako Agentziak (USAID-Mexiko) eta Kaliforniako Kontserbazio Kidegoek finantzatuta, boluntario-talde bat elkartu zen eta Guanajuatoko Kontserbazio Kidegoak osatu zituzten. Horretatik sortu zen Sierra de Santa Rosa Garapen Programa. Proiektu horren ezaugarri nagusia inguruko komunitateetako emakumeen presentzia da, parte-hartzaile guztien % 40 baitira. Horri esker ikusi ahal izan da emakumeak nola sartu ziren proiektuaren barruko ekimenetan, erabaki-hartzeetan eta barneko egituretan.

Programak, genero-ikuspegiari dagokionez, onura hauek ekarri zituen: autokudeaketa, entzuteko gune bat sortzea eta, azken batean, beren komunitatean emakumeen ahotsa aintzat hartzea. Proiektuaren ildoetako bat izan zen ingurumena errespetatzen duten jarduerak ekonomiko alternatiboak bultzatzea. Emakumeen enpresei laguntzeko lan horren adibide bat Conservas Santa Rosa enpresa



da. Sierra de Santa Rosa Garapen Programarekin batera jarri zen martxan, Guanajuato herrixkako bost emakumek marmelada-fabrika bat sortu zutenean. 2006an, Toks-ekin elkartuta, enpresa hazi egin zen, eta gaur egun ere zabalik jarraitzen du. Hala, diru-sarrerak sortzen ditu komunitatearentzat, lurren ustiapenak jada sortu ezin dituenak.

Horrelako proiektuetan parte hartzeak modu aktiboan, publikoan eta komunitatean bete-beteen parte hartze-ko tresnak ematen dizkio emakumeari. Hala ere, emakumeak lidergo-postuez jabetzea ez da hain emankorra izan proiektuan zehar, postu horietako gehienak gizonak betetzen baitituzte.

Komunitatean txertatuta dauden botere-egiturek zaildu egiten dute lidergo-postuetan eta erabakiak hartzeko postuetan parekotasuna izatea. Aldaketa bat egin behar da garapen jasagarria gerta dadin. Hau da, Sierra de Santa Rosa Garapen Programa bezalako ekimenak are gehiago garatu behar dira, emakumea komunitatearen parte aktiboa izatea lortu arte, ezarritako egiturekin hautsita.

Proiektua Gobernu Kanpoko Foku gisa aitortu da Hezeguneen arloko Jendearen Komunikazio, Hezkuntza eta Kontzientziazio Ekimenean (CECoP-Mexiko), eta SEMARNATEk Guanajuaton duen Ordezkaritzak Meritu Ekologikoaren Sarirako (2005 eta 2014) aurkeztu zuen.

Gai hori ez da hutsala, ingurumenaren auzia datozen hamarkadetan mundu mailako gatazken eragile handienetako bat izango dela aurreikusi baita. Neurri batean, azken horren ondorioz, klima-krisiak migrazio-korronteak sortzea espero da gehien sufritzen duten eta,aldi berean, klima-aldaketa horren ondorioei aurre egiteko baliabide gutxien dituzten herrialdeetan.

Barne-desplazamenduen Jarraipenerako Zentroak "Barne-desplazamenduei buruzko mundu-txostena 2021" txostenean argitaratu duenez, hondamendi naturalak izan ziren 2020an izandako 40,5 milioi joan-etorrien arrazoi nagusiak, gatazkaren eta indarkeriaren aurretik. Aipatzekoa da azken urtean erregistratu dela azken hamarkadako barne-desplazamenduen kopururik handiena. Desplazamenduen arrazoiaren arabera aldatzen ez dena da, edozein kasutan, neurritz kanpo eragiten diela emakumeei eta neskei (IDMC, 2021).



IN SOLIDARITY- THE MIGRATION BLANKET (ERRESUMA BATUA)



Azterlan hau zein unetan egin den kontuan hartuta, garrantzitsua dirudi Koronabirusaren pandemia aipagai duen kasu bat sartzea. Krisi horrek etorkizunean izango dituen ondorioak imajinatzea espekulazio-ariketa bat besterik ez da oraindik. Hala eta guztiz ere, denbora honetan aurrera eramandako ekintzek eta ekimenez erakutsi dute garrantzitsua eta beharrezkoa dela pertsonak konektatzeko modu berriak sortzea, bereziki egoera ahulenean daudenak.

In Solidarity - The Migration Blanket artelana koronabirusaren krisian sortu zen. Mundu osoko haur eta emakume errefuxiatu eta asilo-eskatzailleek parte hartu zuten lan horretan, Salma Zuilfiqar nazioarteko artista eta giza eskubi-deen aktibistarekin batera. Artelanak neskatoek eta emakumeek pandemian egindako irudiak aurkezten ditu eta gure komunitateetan dauden desberdintasunak jorratzen ditu, mundu mailako elkartasunerako dei eginez. Midlands Art Centre (MAC) eta Erresuma Batuko Arte Kontseilua lankidetzan aritu dira abian jartzeko, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren (UNHCR) laguntzarekin eta Loteria Nazionalaren proiektuetarako dirulaguntza baten laguntzarekin.

Lan hau "The Migration Blanket" lanaren jarraipena da, 2019an Veneziako Arte Biurtekoan erakutsi zena. Lan hori ez bezala, In solidarity modu telematikoan egindako tailerren bidez garatu da, konektatzeko eta konfinamendua aldietan askok aurre egin behar izan zioten isolamendua hausteko asmo garbiarekin. Marrazketa, pintura, zinema, poesia eta eztabaida bezalako ikusizko arteen konbinazioaren bidez, kultura hobeto uler dadin sustatzen saiatzen dira tailer horiek. Guztira, 20 nazionalitate baino gehiagoko eta bost kontinenteetako 30 emakumek hartu zuten parte nazioarteko lan digital kolektibo honen sorreran.

Zulfiqarrek berak 2016. urtetik Erresuma Batuan garatzen duen ARTconnects proiektuaren barruan kokatzen dira tailerrak. Gutxiengo kalteberekiko tentsio politiko eta gorrero-jokabide gero eta handiagoen ondorioz sortu zen,

komunitateetan gizarte-kohesioa eta bakea sustatzeko proiektu gisa. Emakume errefuxiatuekin eta asilo-eskatzailerekin lan egitea du ardatz, uste baitu emakume horiek aurre egin behar diotela jasaten ari diren kalteberatasun-egoerari, genero-arazoak larriagotu egin duena.

Ikuspegi horretatik, In solidarity-ren azken helburua da, ARTconnects proiektuaren barruan, errefuxiatuek eta etorkinek komunitateetan eta komunikabideetan dituzten estereotipo negatiboak aldatzea. Horretarako, sormena eta adierazpen artistikoa adierazpen-tresna bihurtzen dira parte hartzen duten emakumeentzat, esparru politikoan sartu eta hartan ahotsa izan dezaten. Azken batean, ahal-duntze-ariketa bat da, artea bide gisa hartuta.

Film labur gisa aurkeztu zuen Salma Zulfiqarrek "In solidarity - The Migration Blanket" lana, eta Berlingo Zinema Independentearen Jaialdian (BIFF) animazioko film labur onenaren saria jaso zuen otsailan egindako 2021eko edizioan. Sari horri esker, proiektua beste eremu batzuetan ezagutzera eman da eta publizitatea lortu da. Hala ere, proiektuaren informazio- eta dibulgazio-orrietan nabarmendu nahi dena da parte-hartzaileengan duten eragina.

ARTconnects-en plataformetan adierazten duten bezala, parte hartu zuten emakumeen % 100 ados dago komunitate-zentzu handiagoa izatearekin. Pandemia batean komunitate-zentzu hori azalratzea izan da In solidarity ekimenak aurre egin dion erronka.



RUANDA, EMAKUMEEK BERRERAIKITAKO KOMUNITATEA

Tutsien aurkako 1994ko genozidioan, Hutuen eta Tutsien arteko gatazkaren ondorioz, duela hamarkada batzuk milioi bat lagun inguru sarraskitu zituzten, gehienak gizonak. Gutxiengo Tutsia, eta une hartan herrialdeko buruzen Hutuen gobernuaren aurkariak jazarriak izan ziren. Sexu-indarkeria gerrarako arma gisa erabiltzearen ondorioz, kalkulatu da 250.000 eta 500.000 emakume artean bortxatu zituztela eta beste milaka harrapatu eta esklabo sexual gisa erabili zituztela.

Gertaera ilun hark utzitako herrialdean bizirik atera ziren Tutsi gehienak emakumeak ziren, hildako gizon haien alargunak. Gertaturiko ankerkerien lekuko izan ziren gehienak, eta beren gainean erabilitako indarkeriaren biktimak. Indarrean zegoen legeriak emakumeei senarren ondasunak heredatzen uzten ez zirenean oraindik, elkarren laguntza besterik ez zuten emakume haiek, eta berreraiki beharreko gizarte bat.

Peace Ruzage da emakume horietako bat. Genozidioaren ondoren, beste alargun batzuekin biltzen hasi zen bere etxeko patioan, eta adiskide egin ziren, elkarri lagunduz eta pairatzen zuten pobrezari aurre egiteko modu berriak asmatuz. Laster 300 emakume izatera iritsi ziren eta Aspire Rwanda alargunen elkarte sortu zuten.

Emakumeek partekatzen dituzten espazioez ez da inor ohartzen askotan. Etxe-eremuko leku bat, etxe bateko patioa, berreraikitze-prozesu baten gune bihurtu daiteke, komunitate zatitu baten erdian.

Ondarearen azterketan, etxeetako patioak bezalako tokiak askotan ez dira aintzat hartzen duten garrantziagatik.

Eremu pribatuaren barruko etxeko espazioetan sorberritzen diren balioek, emakumeak nagusi direla, laguntzen dute komunitate-identitatea sortzen. Hala ere, ikusezin bihurtzen dira. Ikusten ez dena ez ote da existitzen? Erregistratuta ez dagoena ezin al da aintzat hartu?

Gaur egun, kultura-ondare immateriala da kultura transmititzeko modu nagusietako bat. Bestalde, egia da kultura-transmisio horren zati handi bat eremu pribatuan garatzen dela. Azterlan honetan behin eta berriz adierazi da hortxe, eremu pribatuan, etxeko espazioetan, adierazi eta transmititzen dituela emakumeak bere balioak.

Alderdi horretan dago, alderdi pribatuan egiten den transmisio-lan hori aintzat hartzeko prozesuaren erronkarik handienetako bat da. Eremu publikotik eta politikotik kanpo garatzen denez, ez da ezaguna, eta askotan ez da aintzakotzat hartzen. Ikusezin bihurtzeko prozesua gertatzen da, eta emakumearen rola gutxietsi egiten da.

Testuinguru akademikoetan, orain arte, eremu publikoaren barruan dagoen horretan oinarritu da batez ere ondarearen azterketa. Espazio horretan, gizonaren jarduerak nagusitzen da, eta luzaroan gizonentzat gorde diren botere-egitura politikoei erantzuten die. Eremu horretan emakumeak ez du gizonarekiko berdintasunik, eta ondareari buruzko azterlanetan argi islatu da hori.

Historia osatzen duten eraikin handiak, epaitegiak, parlamentuak eta bestelako monumentuak ezagutzen ditugu. Boterearen eremu publiko eta politikotik egiten den ekarpen kulturala adierazten dute horiek, eta eremu horretan gehienetan, azterlanean zehar adierazi den bezala, oso nabarmena da gizonaren presentzia.

Emakumea nagusi den espazioen inguruan zabalkunde handiagoa behar dela ikusten da. Espazio horiek dira emakumeen leku segurua eta ondarea, eta aldarrikatu egin

behar dira. Nork bere burua konbentzitu behar du eta etxeko eremuan transmititzen diren balioak eta zainketa-aren etika aintzat hartu behar dira. Balio horiek funtsezko ekarpena egiten dute komunitatearen identitatea sortzeko, aniztasunaren barruan kohesioa sortzeko. Emakumearen ahalmena aintzat hartzeko eta balioesteko prozesuak eremu publiko eta politikoan parte hartzera bultzatzen du, eta horregatik ere garrantzitsua da. Horretan datza ondarearen ideia, kulturatik bereizi ezin den elementua, emakumea ahalduntzeko tresna gisa.

Emakumeek kultura-eskubideak eskuratzeak beste eskubide batzuk aitortzea dakar, hala nola adierazpen-askatasuna, elkartzeko askatasuna, pentsatzeko askatasuna eta hezkuntza. Nazio Batuen Erakundearen eta UNESCOren gisako erakundeen oinarritzko itunak eta hitzarmenak berresten dituzten estatuak ahaleginak egin behar dituzte eskubide horiek bermatzeko. Erantzukizun hori beren gain hartu behar dute, giza eskubideekiko eta, zehazki, emakumeen eskubideekiko duten konpromisotik.

Era berean, sakonago aztertu beharko lituzkete emakumeak komunitatearen eraikuntzan duen rola eta ondarean duen partaidetza. Beren inguruan eraikitzen duten komunitatea da emakumeek sortzen duten ondarea. Emakumeak ondareari egiten dion ekarpena bere kultura partikularra da, komunitatearentzat sortzen dituen identitate- eta kohesio-balioak, bere potentziala eremu pribatura mugatu gabe.

“Beren inguruan eraikitzen duten komunitatea da emakumeek sortzen duten ondarea”.

Abuzeid, R. (2019, urriaren 24a). Así se esfuerzan las mujeres ruandesas por reconstruir su país. National Geographic. Hemendik hartua: <https://www.nationalgeographic.es/historia/2019/10/mujeres-ruanda-reconstruyen-su-pais>

APEC (2015). Good Practices on Economic Empowerment of Women in Post- Disaster Reconstruction in Tohoku and the Asia-Pacific. Singapur: APEC.

Aspire Rwanda. Elkartearen webgunea. <http://www.aspirerwanda.org/about-us/>

AVEGA Agahozo. Elkartearen webgunea. <https://gruber.yale.edu/womens-rights/avega-agahozo>

Beginning with Banig (2020/1/10). Woven.

Hemen eskuragarri: <https://woven.ph/blogs/news/beginning-with-banig>

Benhabib, S. (1990). "El otro generalizado y el otro concreto: la controversia Kohlberg-Gilligan y la teoría feminista", Benhabib y Cornell (eds.), Teoría Feminista y Teoría Crítica. Valentzia: Ediciones Alfons el Magnànim.

Berlin Independent Film Festival: 2021 edizioko sarituen zerrenda. Hemen eskuragarri: <http://www.berlinfest.com/>

Blake, J. (2015). "Generoa eta Ondarea; Kultura immateriala", UNESCO,

Genero berdintasuna, ondarea eta sormena. Paris, UNESCO.

Bracco, R., Mazz, J. M. L., Rojas, B. O., Batalla, N., & Bongiovanni, R. (2012). Esclavitud y afrodescendientes en Uruguay. Una mirada desde la antropología. FHCE, Montevideo.

Cameron, C eta Rossler, M., "Munduko Ondarea eta Generoa", Munduko Ondarea, 78. zk., Paris, UNESCO, 2016, 6-11. or.

Charles & Keith. (2017, otsailaren 27a) CHARLES & KEITH x Woven: Interview With The Artisans. Hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=ZYQPKkhO7hA>

CCG AC. (2009). Sierra de Santa Rosa Desarrollo Microregional. Hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=n-foSOFJXiO>

Climate Change and Migration in Vulnerable Countries. (2019). Génova, International Organization for Migration (IOM).

Comins Mingol, I. (2003). "Del Miedo a la Diversidad a la Ética del Cuidado: Una Perspectiva de Género", Convergencia, 2003ko iraila-abendua, 33. zk., 97-122. or.

Cuerpos de Conservación de Guanajuato AC. Webgunea, hemen eskuragarri: <https://ccgac.wordpress.com/>

Dandan, A. (2019, martxoaren 17a). Vivas nos queremos. El Cohete a la Luna, Hemendik hartua: <https://www.elcohetealaluna.com/vivas-nos-queremos/> (2021/5/7).

del Cano, A. M. M. (2009). "Los derechos de la mujer y la cultura: ¿un conflicto?". In Inmigración, multiculturalismo y derechos humanos (235-256. or.). UNED, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala.

Duncan, J. eta García, L. (2019, urtarrilaren 12a). Rwandan women rebuild their country from the ground up after genocide. CBS News. Hemendik hartua: <https://www.cbsnews.com/news/rwanda-women-rebuild-their-country-from-the-ground-up-after-genocide/>

Empowering Women of Tomorrow: A special collaboration with Charles & Keith. (8/3/2019). Woven. Disponible en: <https://woven.ph/blogs/news/empowering-women-of-tomorrow-charles-keith>

Hautagaitza-espeditzea "El candombe y su espacio sociocultural: una práctica comunitaria". Gobernu arteko Batzordearen laugarren bilera (4.COM), Abu Dhabi, Arabiar Emirerri Batuak, 2009ko irailaren 28tik urriaren 2ra. Hemen eskuragarri: <https://ich.unesco.org/es/RL/el-candombe-y-su-espacio-sociocultural-una-practica-comunitaria-00182>

García Lozano, A. (2011). Organización de la Sociedad ante el Cambio Climático. Mexiko, Cuerpos de Conservación de Guanajuato (CCG AC).

-Garcidueñas, P. (2015, urtarrilaren 23a). De ama de casa a empresaria ejemplar. Expok. Hemendik hartua: <https://www.expoknews.com/de-ama-de-casa-a-empresaria-ejemplar/>

Gilligan, C. (1985). La moral y la teoría. Psicología del desarrollo femenino. Mexiko, Kultura Ekonomikoaren Funtsa.

Gogora Institutuak Argentinako diktadura garaiko genero indarkeria eta sexu delituen testigantzak biltzen dituen erakusketa ireki du. (2019/10/30). Gogora. Hemen eskuragarri: <https://www.gogora.euskadi.eus/noticias/-/noticia/2019/gogora-muestra-esma-argentina/>

IDMC, Internal Displacement Monitoring Centre y el Consejo Noruego para Refugiados (2021). Global Report on Internal Displacement 2021. Genova, IDMC.

Juicios de Lesa Humanidad en tiempo real. Webgune ofiziala Giza Eskubideen Idazkaritza, Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioa, Argentinako Gobernua. Hemen es-

- kuragarri: <http://www.juiciosdelesahumanidad.ar/causa.php?id=1941#!/>
- La crisis climática- una carrera que podemos ganar. (s.f.). Nazio Batuak. Hemendik hartua: <https://www.un.org/es/un75/climate-crisis-race-we-can-win>
- La Melaza. Konpartsaren webgunea: <https://lamelaza.com/>
- La Melaza. (2019, azaroaren 28a). Zambaje Doc. Hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=BmV2VG7pX2w>
- Lakin, S. (2018, apirilaren 10a). Ruanda o cómo sobrellevar tu propio genocidio. El País. Hemendik hartua: https://elpais.com/elpais/2018/04/09/planeta_futuro/1523274589_389912.html
- Emakumeak, ingurumenak behar duen indarra. (2019, martxoaren 8a). NBEko albisteak. Hemendik hartua: <https://news.un.org/es/story/2019/03/1452431>
- Maraña, M. (2014). Women in intangible heritage: towards active participation with a gender approach. The case of the Candombe in Uruguay. Bilbo, UNESCO Etxea.
- Maraña, M., (2015). Patrimonio y Derechos Humanos: Una mirada desde la participación y el género en el trabajo de Naciones Unidas en patrimonio cultural. Bilbo, UNESCO Etxea.
- Kultura eta Kirol Ministerioa. (2019). Análisis de la participación de las mujeres en el patrimonio cultural inmaterial: Situación actual, experiencias y perspectivas de futuro. Madril, Kultura eta Kirol Ministerioa.
- Moghadam, V.M. eta Bagheritari, M. (2005). Cultures, Conventions and Human Rights of Women: examining the Convention for Safeguarding intangible cultural heritage and the Declaration on Cultural Diversity, Paris, UNESCO.
- Mullen, J. (2013, azaroaren 7a) El súper tifón Haiyan toca tierra en Filipinas con vientos sostenidos máximos de 313 kmh. CNN en español. Hemen eskuragarri: <https://cnnespanol.cnn.com/2013/11/07/haiyan-uno-de-los-tifones-mas-fuertes-de-la-historia-se-dirige-hacia-filipinas/>
- Museo Sitio de Memoria ESMA. Webgune ofiziala. Hemen eskuragarri: <http://www.museositioesma.gob.ar/>
- Nazio Batuak(1948). Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.
- Nueva Década de la ONU para la Restauración de los Ecosistemas, una gran oportunidad para la seguridad alimentaria y la acción climática. (2019, martxoaren 1a). NBE Ingurumenerako Programa. Hemendik hartua: <https://www.unep.org/es/noticias-y-reportajes/comunicado-de-prensa/nueva-decada-de-la-onu-para-la-restauracion-de-los>
- Programa de Divulgación sobre el Genocidio de 1994 contra los Tutsis en Rwanda y las Naciones Unidas. Webgunea. Hemen eskuragarri: <https://www.un.org/es/prevent-genocide/rwanda/>
- Rao, A. (1995). The politics of gender and culture in international human rights discourse. Women's rights, human rights: International feminist perspectives, 167- 175.
- Rosler, M. (2015). "¿Patrimonio Mundial con perspectiva de género?", UNESCO, Género berdintasuna, ondarea eta sormena. Paris, UNESCO.
- Rwanda genocide: 100 days of slaughter. (2019, apirilaren 4a). BBC News. Hemendik hartua: <https://www.bbc.com/news/world-africa-26875506>
- Ser Mujer en la ESMA, Testimonios para volver a mirar. Webgune ofiziala, hemen eskuragarri: <http://www.museositioesma.gob.ar/item/ser-mujeres-en-la-esma/>
- Shaheed, F. (2012). Kultura-eskubideei buruzko errelatore bereziaren txostena A/67/287. Nazio Batuak.
- The Migration Project (s.f.). Salma Zulfiqar. Hemen eskuragarri: http://www.salmazulfiqar.com/?page=migration_project
- UNESCO (1972). Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Konbentzioa. Paris, UNESCO.
- UNESCO (2003a) Kultura Ondare Immateriala Zaintzeko Konbentzioa. Paris, UNESCO.
- UNESCO (2003b) Kultura Ondare Immaterialari eta Generoari buruzko Adituen Bileraren Azken Txostena. Paris, UNESCO.
- UNESCO (2005). Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko konbentzioa. Paris, UNESCO.
- {UNESCO (2009) Kultura-ondare immateriala babesteko gobernu arteko batzordea: laugarren saioa. 2009ko Ordezkaritzaren Zerrendan inskribatzeko proposamena: El candombe y su espacio sociocultural: una práctica comunitaria. Hemendik hartua: <https://ich.unesco.org/es/RL/el-candombe-y-su-espacio-sociocultural-una-practica-comunitaria-00182?RL=00182>
- UNESCO (2014). UNESCOren "Genero-berdintasuna" lehen-tasunerako Ekintza Plana (2014-2021). Paris, UNESCO.
- UNESCO (2015) Género berdintasuna, ondarea eta sormena. Paris, UNESCO.
- UNESCO (2017a). UNESCO Aurrera doa: Garapen jasangarriko 2030 Agenda. Paris, UNESCO.
- UNESCO (2017b). Lista tentativa de patrimonio de la humanidad de UNESCO: Candidatura "ESMA Site Museum". Hemen eskuragarri: <http://whc.unesco.org/en/tentativelists/6248/>> (3/5/2021)
- UNESCO eta BIRF (Berreraikuntzarako eta Sustapenerako Nazioarteko Bankua) (2018). Culture in city reconstruction and recovery. Paris, UNESCO.
- Saldaña Tejeda, A. (2015). Ecofeminismo, mujeres y desarrollo sustentable: el caso de la Sierra de Santa Rosa en Guanajuato. Región y sociedad, 27(62), 63-96.
- Topping, A. (2014, apirilaren 7a). Widows of the genocide: how Rwanda's women are rebuilding their lives. The Guardian. Hemendik hartua: <https://www.theguardian.com/global-development/2014/apr/07/widows-genocide-rwanda-women>

ONDAREA ETA HEZKUNTZA

Metodologiak eta jardunbide egokiak



Eskeia
Ainhoa de la Hoz González
Ondare UP bildumaren koordinatzailea
Begoña Guzmán Sánchez

1 | 2021



ONDAREA ETA GENEROA

Emakumearen papera komunitatearen eraikuntzan



Eskeia
Ainhoa Azkarate Iriondo
Ondare UP bildumaren koordinatzailea
Begoña Guzmán Sánchez

3 | 2021



ONDAREA ETA COVID-19

Hurbilketa Euskadiko kultura- eta natura-ondarearen egoerara



Eskeia
Mikel Garai
Ondare UP bildumaren koordinatzailea
Begoña Guzmán Sánchez

2 | 2021



ONDAREA ETA KOMUNIKAZIOA

Nola komunikatu ondarea?



Eskeia
Naiara Álvaro Iciar
Ondare UP bildumaren koordinatzailea
Begoña Guzmán Sánchez

4 | 2021



www.ondareup.org